

ERRETERIAKO SOINU-INGURUA

HOBETZEKO PLANA

2017-2021


ESKATUTA:



Errenteriako Udala
Ayuntamiento de Errenteria

ERRETERIAKO UDALA

EGILEA:



AAC Acústica+Lumínica

Data: 2017ko apirila

Txostena: 160621rev5

Orrialde kopurua: 43

AURKIBIDEA

1. JUSTIFIKAZIOA.....	3
2. UDALERRIA	3
3. ERREFERENTZIAZKO LEGE-TESTUINGURUA	5
4. ZARATA-MAPAREN EMAITZEN LABURPENA.....	7
5. UDAL MAILAN ZARATAREKIN LOTUTAKO BESTELAKO PLAN ETA PROGRAMAK.....	10
6. KAH GAINDITZEN DITUZTEN EREMUEN IDENTIFIKAZIO ETA LEHENESTEA. BABE-N AURREIKUSPENA (BABES AKUSTIKO BEREZIKO EREMUAK)	11
7. KAH-N GAINETIK KALTETUTAKO BIZTANLERIAREN MURRIZKETAREN AURREIKUSPENA	14
8. 2017-2021 TARTERAKO LAN-ILDOAK	15
9. EZARRI BEHARREKO NEURRIEN KUANTIFIKAZIO EKONOMIKOA	37
10. AGENTE ARDURADUNEN IDENTIFIKAZIOA.....	38
11. JARRAIPEN PLANAREN DEFINIZIOA	39
12. INFORMAZIOA PUBLIKORA ZABALTZEAN, ALEGAZIO EDO OHARREN LOTURA	40

1. JUSTIFIKAZIOA

Agiri honek, 213/2012ko Dekretuak II. ataleko 17. artikuluan (Ekintza Planak) ezartzen dituen Ekintza Planei buruzko betebeharrak betetzen ditu.

Bere izenburua "Soinu-ingurunearen hobekuntza plana" da, agiriak akustika kontuei ikuspuntu zabalagotik ekin nahi dielako. Bere xedea ez da bakarrik kutsadura akustikoa murriztea; baizik eta udalerriko kalitate akustikoa hobetzea, ikuspuntu guztietatik: prebentzioa, gatazken murrizketa, lasai eremuen babesa edo eremuen hobetze akustikoa.

2. UDALERRIA

Erreterria Udalerria, Gipuzkoako lurralde historikoaren ekialdean kokatzen da, eta 32,26 km²-ko azalera dauka. 2015/12/31 39555 pertsonako biztanleria dauka, Udaleko Webgunean argitaratutako datuen arabera.

Iparraldean Pasaia Antxon eta Lezorekin mugatzen da, ekialdean Oiartzun eta hegoaldean Nafarroa, mendebaldean Astigarraga eta Hernani.

Hauk dira ingurumeneko zarata-iturririk azpimarragarrienak:

- Herriguneko hego-ekialdea zeharkatzen duen AP1-AP8 autobidea.
- GI-20 (Donostiko lehenengo gerrikoa), AP-8-aren zeharbide zaharretik igarotzen da, herriguneko hegoaldeetik.
- GI-636 errepidea, mendebaldetik eta iparraldetik igarotzen da, mugetan, ondoko udalerrietan sartzen dena.
- ADIF-eko trenbideak, herrigunearen iparraldetik eta mugatik oso gertu, hau ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du.
- ETS Trenbide Sareko bidea, herrigunearen erdialdetik, hau ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duela.
- Hiriaren erdialde kokatutako Papresa enpresaren jarduera.
- Pasaia Portu Jarduera

Zarata-Maparen harira, Erreterria udalerriko bide trafikoa Nafarroako Hiribidea, San Marko eta Jorge Oteiza kaleetan trafikoa kontzentratzeagatik nabarmentzen da, baita herrigunera sartzeko sarbide diren beste hainbat kaleetan ere, horien artean, Jaizkibel hirigunea. Azken honek, nahiz eta Lezo udalerrikoa izan, badauka eragin akustikoa Erreterriako udalerrian.

Herriguneko bide-trafikoaz gain, Errenteriako Udalean eragin-akustikoa izan dezaketen azpiegitura garrantzitsuenak ere kontuan izan behar dira, bai udalean bertan daudenak, baita oso gertukoak direnak ere:

- **Errepideak:** AP1-AP8 autopista, komunikazio bide nagusia, udalerria iparraldean, ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du. GI-20 errepideak, herrigunearen hegoaldean, udalerria ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du. Hauxe gain, GI-636 errepideak, udalerria iparraldean inguratzen du, batez ere Lezotik igarotzen delarik.
- **Trenbidea:** Herrigunearen iparraldea inguratuz, ADIF-eko Zumarraga-Irun trenbidea igarotzen da, honek bidaiari zein merkantzia trenak jasotzen ditu. Herrigunearen erdialdean ordea, ETS-ren Donostia/San Sebastián-Hendaia trenbidea igarotzen da.

Trafiko azpiegituz gain, industria-guneen presentzia ere azpimarratu behar da. Errenterian industria gune ezberdinak daude:

- Herrigunearen hegoaldean, Txirrita Maleo, Masti-Lodi eta Egiburuberrri industria-guneak daude.
- Mendebaldean, Aranguren Talaia industria-gunea dago, horren zati bat Oiartzunen dagoelarik.
- Iparraldean Pasaiako Portua dago
- Eta herrigunean Papresa enpresa dago.

Hauxe gain, enpresa txiki eta hainbat tailer jasotzen dituzten zonalde sakabanatuak daude ere.

3. ERREFERENTZIAZKO LEGE-TESTUINGURUA

Ingurumeneko zarataren erreferentziako legea, estatuaren aldetik 37/2007 Legea dugu, 1513/2005 eta 1367/2007 ED-etan garatutako legea, eta 213/2012-ko kutsadura akustikoaren gaineko Dekretuaren bidez Euskal Autonomi Erkidegora iraulia.

Estatuko legediari dagokionez, honek 2012ko urriaren 24a baino lehenago udal guztiei zonakatze akustikoa onartzea ezartzen die, baina autonomi erkidegoko dekretuak, 2012. Urteko amaierako dekretuak, zonakatze honetan kontuan izan beharreko hainbat aldaketa ezari zituen. Zonakatze akustikoak, udalerriko kalitate akustikoko helburuak egun duten edo etorkizunean izatea espero diren lurzoruen erabileren arabera ezartzen ditu, eta helburu horiek 1367/2007 ED-ko II. Eranskinean atxikitzen dira:

RD.1367/2007. ED. II. Eranskina, A Taula. Jada existitzen diren eremu urbanizatueta aplikagarriak diren kalitatezko zarata-mailak.

EREMU AKUSTIKO MOTA	L _d	L _e	L _n
a) Bizitegi- erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	65	65	55
b) Industria- erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	75	75	65
c) Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	73	73	63
d) c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde- esparru edo sektoreak.	70	70	65
e) Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo-sektoreetarako zehaztutakoekin.	60	60	50
f) Garraio- azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde- esparru edo- sektoreak. (1)	(1)	(1)	(1)

OHARRA: eremu akustikoetan aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak, lurzorutik 4m-ko altuera dute erreferentzia.

- (1) lurraldeko sektore hauetan kutsadura akustikoko prebentzio neurri egokiak aplikatuko dira, 37/2033 azaroaren 17ko legearen 18.2 artikulua a) atalean ezartzen denarekin bat eginez, hobekuntza teknologiko berrienak eta inzidentzia akustikorik txikiena duten metodologiak erabiliz.
- (2) Lurraldearen sektore hauen mugetan, ez dira, horiek mugatzen diren eremuetan aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak gaindituko.

Oraindik existitzen ez diren eremu urbanizatueta, kalitate akustikoko helburuak aurrekoak baino 5 dB(A) baxuagoak izango dira.

Bestalde, **autonomi erkidegoko legediak, 213/2012 Dekretuak**, urriaren 16ko eta 2013. urtearen urtarrilaren 1ean indarrean jarritako kutsadura akustikoaren aurkako Euskal Autonomi Erkidegoko Dekretua, alegia, lurzoruen erabileraren arabera, honako kalitate akustikoko helburuak ezartzen ditu I. eranskineko taulan:

213/2012ko Dekretua, I. eranskina A Taula. Jada dauden eremu urbanizatuentzako kalitate akustikoko helburuak.

Eremu akustiko mota		Zarataren adierazleak		
		L_d	L_e	L_n
E	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo -sektoretarako zehaztutakoekin.	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
D	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	70	70	65
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
B	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	75	75	65
F	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)

(1) Beren eremuaren muga, mugakide dituen eremuen zonakatze motari dagozkionak izango dira.

Oharra: kanpoaldean aplika daitezkeen kalitate akustikoko helburuak lurretik 2 metroko garaiera neurtuko dira; leihodun fatxaden kanpoko aldean, beriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.

10. artikuluko 1 eta 2 paragrafoek aipatzen dituzten zarata-mapak egiteari dagokionez, ebaluazio akustikoa taula honetako balioak aintzat hartuta egingo da, baina lurretik erreferentzia gisa 4 metroko garaiera hartuta.

Etorkizunean garapen urbanistikoa egongo den eremuarentzako, baita birkalifikatutako lurzorueta ere, kalitate akustikoko helburuak, aurreko taulakoak baino 5 dB(A) zorrotzagoak izango dira. Etorkizuneko garapen urbanistikoa, honako hau izango delarik:

Lurzoru eta hirigintzako 2/2006ko ekainaren 30eko Legearen 207. Artikulua b) ataleko lizentzia behar duen eraikin edo obrak gauzatzea espero den edozein eremu.

Aurrekoaz gain, Dekretuak, Errenteriako udalerrian eragina duten beste hainbat exigentzia ezartzen ditu:

- Zaratarekin lotutako udal ordenantza guztiak, hau da, zaratan eragina duten ordenantzak, 2015ko urtarrilaren 1ean baino lehenago Dekretu honetara egokitu beharko dira.
- 10000 biztanle baino gehiago izateagatik, zarata-mapa bat egin behar du 2017ko urtarrilaren 1ta baino lehenago.
- Zarata-mapa onartzen denetik, urte bateko epea ezartzen da, ekintza-plana onartzeko, eta plan hau 5 urteko iraupena izango du. Epe hori pasatzean beriz aztertu beharko da.

Ekintza planeko txostena, Dekretuak ekintza-planetarako ezarritako exigentzien ondorio da, 17. Artikulua II. Atala: Ekintza-Planak.

4. ZARATA-MAPAREN EMAITZEN LABURPENA

Jarraian, azterketa orokorretik lortutako ondorioak aurkezten dira (Ingurumeneko Zarata-Mapa Totala), eremurik kaltetuenetan eta ondorioz, zarata-mailarik altuenak jasaten dituztenean. Emaizta hauek, eranskinetako mapetan hobeto ikusten dira, baino laburpen moduan, eremurik kaltetuenetako iturrien araberako zarata- mailak aurkezten dira:

Kale trafikoari dagokionez, trafiko gehien jasotzen duten bideetatik gertuen dauden etxebizitzak: Nafarroako hiribidea eta San Marko kalea. Jorge Oteiza kalea aurrekoen antzeko zarata-mailak sortzen ditu; hala ere, ez dago bidetik hain gertuko etxebizitzarik, eta ondorioz, biztanlerian eragiten duen kaltea txikiagoa da.

Errepideetako trafikoari dagokionez, Beraun kalean kokatutako etxebizitzak, GI-20 errepideko trafikoagatik kaltetuak. Ekialdean kokatutako etxebizitzak (Markola, Fanderia eta Lartzabal), AP-8 eta GI-636, errepideen eragina jasotzen dutenak.

Industria jardueraren zarataridagokinez, industria guneen kokapena dela eta, ondoko baserriak dira erasan gehien jasotzen dutenak, Gamongoa, Urkiola eta Papresa enpresagatik, herriguneko bestelako etxebizitza batzuk ere.

Trenbidearen zaratari dagokionez, ADIF trenbidearen eragin zuzenena jasotzen duten etxebizitzak, Askatasuneko Martir kalean edota Nafarroako etorbidekoan (Gaberrota auzoan) kokatzen dira. Horrez gain, ETS sareko trenbide zaratarekin lotuta, Kaletxiki kaleko trenbidera jotzen duten fatxadak dira erasan akustiko gehien jasotzen dutenak, baita Fanderia geltokira jotzen dutenak ere.

Errenteriako udalerrian, errepideetako trafikoa, inguruan zarata mailarik altuenak eragiten dituen zarata-iturria da (GI-20 eta AP1-AP8 errepideak). Kaltetutako biztanleriaren ikuspegitik, kaleetako trafikoa da erasan gehien eragiten duena (kale eta errepideak).

Kaltetutako biztanleriaren azterketatik, **lurzorutik 4 metroko altuerarako kalkulaturako biztanleria kaltetuaren adierazlea** oinarri hartuta ($P_{af,4m}$), ikerketatik, ingurumeneko zarata-iturri guztiak kontuan hartuta, **bide-trafikoa**, Errenteria udalerrian erasan gehien sortzen duena dela ondorioztatzen da.

Horren gain, eguna, arratsaldea eta gaueko aldietarako, etxebizitza-eremu batean aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuen azterketatik honako hau ondorioztatzen da:

- **Gauekoa da**, eguneko aldirik kaltegarriena, izan ere, oinarrizko mailen (55dB(A)) gainera zarata-mailak jasaten duen biztanle kopuru gehien duen aldia da. Biztanleriaren %15a, hain zuzen.

- **Kaleetako trafikoa da** kaltetutako biztanle gehien eragiten duen zarata-iturria, beti ere, neurketak 4m-ko altueran egite direla kontuan izanda. Altuera guztiak kontuan hartzen baditugu, errepideko trafikoa izango litzateke zarata-iturririk kaltegarriena.
- Trenbide trafikoarengatik kaltetutako biztanleria %1-ekoa da, industriagatik kaltetutako biztanleria gutxiago izanik.

Modu berean, modu orokorrean eremu akustikoak kontuan hartzen baditugu, honakoa ondorioztatzen da:

- Biztanleriaren %3ak kalitate akustikoko helburuen gainetik 5 dB(A)-tan dauden zarata mailak jasaten ditu, hau da, $L_n=60$ dB(A) gainetik.
- Errenteriako biztanleriaren %57ta eremu lasaietako zarata-mailak jasotzen dituztela esan daiteke, hau da, etxebizitza gunetarako ezarritako kalitatezko zarata mailen helburuak baino 5 dB(A) baino maila baxuagoak (55 dB(A) gaueko aldirako).

Zarata-mapetatik lortutako, kaltetutako biztanleria adierazleentzako emaitzak, jarraian aurkezten diren tauletan laburbiltzen dira, lehenak, lurzorutik 4m-ko altuerarako lortutako emaitzak adierazten ditu, eta bigarrenak, altuera guztiak zein 4m-ko altuera kontuan izanda, gehienbat etxebizitza erabilera duen lurzoruentzako ezarritako kalitate akustikoko helburuen gainetik kaltetutako biztanleria adierazten du. Taula bietan, emaitzak zarata-iturrien arabera aurkezten dira.

4M-KO ALTUERAN KALTETUTAKO BIZTANLERIA

Tarteak	KALE-TRAFIKOA			ERREPIDE-TRAFIKOA			TRENBIDE TRAFIKOA			INDUSTRIA			TOTALA		
	Ld	Le	Ln	Ld	Le	Ln	Ld	Le	Ln	Ld	Le	Ln	Ld	Le	Ln
50 - 54			7.961			3.239			1.329			129			11.393
55 - 59	9.880	9.154	3.216	3.781	3.730	1.789	1.289	1.528	449	97	97	35	11.096	11.654	5.466
60 - 64	5.479	3.933	439	1.903	1.849	204	318	563	43	20	20	20	8.599	6.713	1.530
65 - 69	2.471	1.007	0	448	428	0	4	43	0	0	0	0	3.635	2.256	4
> 70	-	-	0	-	-	0	-	-	0	-	-	0	-	-	0
70 - 74	0	0	-	2	0	-	0	0	-	0	0	-	14	4	-
> 75	0	0	-	0	0	-	0	0	-	0	0	-	0	0	-

ERREFERENTZIA MAILEN GAINETIK KALTETUTAKO BIZTANLERIA

ADIERAZLEA	ZARATA-ITURRIA	Biztanle kopurua			% Biztanleria		
		L _d >65	L _e >65	L _n >55	L _d >65	L _e >65	L _n >55
4m-tara kaltetutako biztanleria	KALE-TRAFIKOA	1.832	554	3.118	5%	1%	8%
	ERREPIDE-TRAFIKOA	266	171	1.654	1%	0%	4%
	TRENBIDEA	4	5	425	0%	0%	1%
	INDUSTRIA	-	-	54	0%	0%	0%
	TOTALA	2.578	1.465	5.765	7%	4%	15%
Altuera guztietan kaltetutako biztanleria	KALE-TRAFIKOA	693	104	1.639	2%	0%	4%
	ERREPIDE-TRAFIKOA	1.170	887	3.030	3%	2%	8%
	TRENBIDEA	3	5	423	0%	0%	1%
	INDUSTRIA	-	-	70	0%	0%	0%
	TOTALA	2.673	1.717	6.437	7%	4%	16%

5. UDAL MAILAN ZARATAREKIN LOTUTAKO BESTELAKO PLAN ETA PROGRAMAK

Errenteriako udalak, 10 urtetik hona udalerriaren egoera akustikoan eragina duten ekintza-planak garatu ditu.

Jarraian, plan horien zerrenda aurkezten da:


- Errenteriako iraunkortasunerako tokiko eta eskualdeko ekintza plana (2006).
- Errenteriako ondare naturala eta bioaniztasunaren hobetze eta kontserbaziorako udal strategiaren ekintza plana (2014).
- Errenterian energia iraunkorrerako ekintza plana (2015).
- Oiartzun ibaiaren ingurunean paisaiaren ekintza plana (2015).
- Errenteriako hondakin solidoen prebentzio plana (2015).
- Errenteriako oinezko eta txirrindularien mugikortasun plana (2016).

6. KAH GAINDITZEN DITUZTEN EREMUEN IDENTIFIKAZIO ETA LEHENESTEA. BABE-N AURREIKUSPENA (BABES AKUSTIKO BEREZIKO EREMUAK)

Zarata-mapa, udalerriko zonakatze akustikoarekin alderatuz, KAH (Kalitate Akustikoko Helburuak) gainditzen diren eremuen identifikazioa ahalbidetu du. Legearekin bat eginez, BABE (Babes Akustiko Bereziko Eremuak) moduan aitortuko dira eremu hauek, eta ekintza planean, aitortza-prozesua sartu behar da, non eremu bakoitzaren planak definituko diren ere.

SIHP eremu hauetara mugatzen ez bada ere, jarraian, BABE hauek aurkezten dira, kaltetutako biztanleriaren eta jasotzen diren zarata-maila altueran araberako lehenespenearekin batera.

Honako babes akustiko bereziko eremuak mugatu dira:



Babes Akustiko Bereziko Eremuak

- **BABE₁**: Beraun eremuaren etxebizitza-gunea, Igantzi eta Potinka hegoaldearekin batera, izen bereko eremu osoa osatzen dute lehenengo BABE hau. Eremu honetan dagoen gatazka akustikoa 9 dB(A)-tara heltzen da, etxebizitza kaltetuenetan, Beraun kalean eta GI-20 errepidera jotzen dutenak, alegia.
- **BABE₂**: Iztietia, Morrongileta, Erdialdea eta Alaberga auzoak osatzen dute eremua. Iparraldean ibaiak, mendebaldean Nafarroako etorbideak eta Alabergak, hegoaldean kaletxiki kaleak eta ekialdean Erdialdeko eremuak berak mugatuta (A14). Gatazka akustikorik handiena Nafarroako etorbidean ematen da, 4 -5 dB(A)-takoa izanik, eta kalearen trafikoak berak eraginda.
- **BABE₃**: Udalerriko ekialdea, Gabierrota, Fanderia, Lartzabal, Agustina depositua eta Markolako etxebizitza-guneak osatzen dute bigarren eremu hau. Eremua, iparraldean Nafarroako etorbideak eta trenbideak mugatzen dute, ekialdean udalerraren mugak berak, hegoaldean AP1-AP8 a eta eremu eta sektoreen muga mendebaldean. Eremu honetako gatazka akustikoa 6-7 dB(A)-koa da, Jorge Oteiza, Fanderia eta Lartzabal kaleetara jotzen duten fatxadetan.
- **BABE₄**: Olibet/Etxeberrieta eremuko etxebizitza-gunea, mendebaldean udalerraren mugak mugatuta, ipar eta ekialdean Askatasuneko Martir kaleak mugatuta eta hegoaldean ibaiak, eremu honetan gatazka akustikoa 6 dB(A)-tara heltzen da, eta Askatasuneko Martir kalera jotzen duten etxebizitzetan, trenbidearen, bide-trafikoaren eta industria jardueraren eraginaren ondorio da..
- **BABE₅**: Kaputxino eta Sorgintxuko etxebizitza-guneak eta Don Bosco eskolako eremuak osatzen dute BABE hau. Iparraldean GI-636 errepideak mugatzen du, ekialdean Nafarroako etorbideak eta hegoaldean Esnabide eta Galtzaraborda kaleak mugatzen dute. Gatazka akustikoa, eskola inguruetan 7 dB(A)-tara heltzen da, eta etxebizitza inguruetan apur bat txikiagoa da.
- **BABE₆**: Altzate eremuarekin bat egiten duen BABE dugu hau. Hemen gatazka akustikoa 10 dB(A)-takoa izatera heltzen da errepidetik gertuen dagoen inguruan, eta 5 dB(A)-takoa ibaitik gertuen dagoen eremuan.
- **BABE₇**: Esnabide, Galtzaraborda eta Alabergaren zati bat hartzen du BABE honek. Eremu honetan, gatazka akustikoa 4 dB(A)-takoa da, trafiko gehiago daukaten kaleetatik hurbilen dauden esparruetan.

- **BABE₈**: Gaztaño eta Gaztañoberri sartzen ditu. Eremu honetan, gatazka akustikoa 10 dB(A)-takoa izatera heltzen da hegoaldean, errepidetik gertuen dagoena, GI-20 errepiderainoko distantzia handitzen doan neurrian gutxitzen delarik.
- **BABE₉**: Gamongoa eremuarekin bat egiten duena. Eremu honetan, gatazka akustikoa 10 dB(A)-takoa baino handiagoa da iparraldean, GI-20-agatik; gatazkarik gabekoa delarik industriadetik gertu.
- **BABE₁₀**: Palazio Zarra eremua hartzen du. Esparru honetan gatazka akustikoa 10 dB(A)-takoa baino handiagoa da Ipar eta Ekialdean, GI-20 eta AP1-AP8ko loturatik gertu, gatazka akustikorik ez dagoelarik erdiko gunean.
- **BABE₁₁**: Perutxene/Sagasti eta Lartzabaleko errepidetik hegoaldean dagoen eremua da. Esparru honetan gatazka akustikoa 10 dB(A)-takoa baino handiagoa da errepideetatik hurbil, gutxiago izanda hegoaldean eta errepideetatik urruntzen den neurrian.
- **BABE₁₂**: Sagardiburu eta Añabitarte hartzen ditu. Eremu honetan gatazka akustikoa 4 dB(A)-takoa izatera heltzen da Sagardiburuko mendebaldean eta 10 dB(A)-takoa Añanitarteko iparraldean.

7. KAH-N GAINETIK KALTETUTAKO BIZTANLERIAREN MURRIZKETAREN AURREIKUSPENA

Zaila da maila orokorrean kaltetutako biztanle kopuruaren zenbatespena egitea, baina, eremuetako plan zehatzek, ahal den guztietan, proposatzen diren neurriekin kaltetutako biztanleria zenbateraino murriztuko den balioztatu beharko dute.

8. 2017-2021 TARTERAKO LAN-ILDOAK

Ekintza plana honetakolan-ildoak, hauek dira:

- 1.Lan-ildoak: udal zarata kudeaketan lan egiteko ildoak.
- 2. Lan-ildoak: Ekintza prebentiboak
- 3. Lan-ildoak: Ekintza zuzentzaileak
- 4 Lan-ildoak: Zarata-maparekin zerikusia ez duten hobekuntza ekintzak
- 5. Lan-ildoak: Zabalketa eta heziketa

Jarraian, ildobakoitzagaratzen da.

1.Lan-ildoak: udal zarata kudeaketan lan egiteko ildoak.

Justifikazioa:

Zarata aldagai transbertsala da, eta bere kudeaketa udalaren barnean kasu honetan Udalaren eskuduntzakoak diren faktore asko kontuan izateak suposatzen du. Faktore hauek, udal sail ezberdinetakoak izanik, ekintzak bateratzea oso beharrezkoa da.

Hobekuntzak, denboraz, aukeratzen lan-ildoetan neurriak mantenduz lortzen dira. Era mailakatuan hobekuntzak azaltzen doaz, baina, adierazle orokorretan hobekuntza handirik gabe. Horregatik, beste interes batzuen alde, baina soinu hobekuntzaren kontra joaten diren eta Udalak sustatutako baina SIHAP-tik kanpo dauden ekintzak saihestu behar dira, izan ere, hauek, SIHP-n lortzen diren hobekuntzak murriztu baititzakete.

Ondorioz, garrantzitsua da zarata kudeaketa udal osoaren helburu izatea, honela sail guztien baliabide eta indarrak batuko dira eta.

Bestalde, 213/2012 Dekretua indarrean sartzeak, udalei zenbait behar ezartzen dizkie. Horien artean, txosten ezberdinen onarpena dagoelarik.

Aurrekoa kontuan hartuta, la-ildo honetan garatu beharreko ekintzak, honako hauek dira:

1.Lan-ildoak: udal zarata kudeaketan lan egiteko ildoak.			
Helburuak	Ekintzak	Udal-arduradunak	Adierazleak
L1.1 Zarataren barne-kudeaketa hobetzea. Indarrak eta sinergiak batzea	<p>A.1.1.1 Jarraian aurkeztuko diren funtzioak izango dituen lantaldea sortzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udal sail ezberdinen arteko harreman eta komunikazioa hobetzea • Sail ezberdinen ikuspuntuak bateratzea • Barne-mailan, zaratan eragina duten planetan modu bateratuan lan egiteren garrantziaz kontzientziaz: HAPO, mugikortasuna, esparru publikoak, osasuna, eta abar. Arazoen ikuspegi globala sustatuz • Plan akustikoan beste planen neurriek sortu ditzaketen ondorio negatiboak saihestu edota minimizatzea • SIHP sustatzeko, beste planen ekintzak aprobetxatzea • Planen inbentarioak aprobetxatu, datuak batzeko • Lan-ildo bakoitzean programatutako ekintzak birpasatu eta emaitzak eta adierazleen jarraipena egin • Beste administrazioekin zein Udalarenak ez diren zarata-iturrien kudeatzaileekin egiten diren harremanak koordinatu 	Ingurumen, Hirigintza, Udaltzaingoa, Kultura eta Hiri-mantenuko, Gazteria eta KulturSailak	Urtean ospatutako bilera kopurua
L1.2 Legean ezartzen dena betetzen dela bermatzea	<p>A.1.2.1 Zarata eta bibrazioen udal ordenantza idaztea A.1.2.2 Zarata-Maparen eguneratzea A.1.2.3 Ekintza-Planaren eguneratzea</p>	Lurralde Eremua Ingurumen eta Hirigintza sailak	

2. Lan-ildoak: Ekintza prebentiboak

2.1 Azpi-ildoak, Hiriko garapenean integratutako hobekuntza ekintzak.

Justifikazioa:

Edozein kudeaketa sisteman, prebentzioa da eman beharreko lehenengo pausua. Gainera, lan-ildo honek, helburu bi betetzea ahalbidetzen du: etorkizuneko gatazkak saihestu eta murriztea, eta egun kalitate akustiko ona duten eremuak babestea. Honela, ekintza planetarako, zarataren 37/2003 Legeak eremu lasaietarako ezartzen duen babesaren helburuarekin bat egingo dugu.

Eusko Jaurlaritzako kutsadura akustikoaren 213/2012 Dekretuak, hirigintza planeamenduaren fase guztietan ikerketa akustikoak egitea ezartzen du, eta lizentziak eskaintzeko baldintzak ezartzen ditu ere, eta gauza bera egiten du, lurzorua baldintzak aldatzen diren kasuetarako ere. Garapen berri hauetan gainera, kalitate akustikoko helburuak zorrotzagoak izango dira.

Honetaz gain, Dekretuak, Udalei ematen die eraikinetako kalitate akustikoa bermatzeko eskuduntza. Lan-ildo honek, exigentzia hauen ondorioa da eta Udalean eskuduntza berri hau jorratzeko beharrezko egitura osatzeko helburua du.

2.2 Azpi-ildoak. Eremu lasaiak.


Justifikazioa:

Azpi-ildo honekin, degradazio akustiko saihestu eta esparru lasaien kontserbazioa bermatu nahi da izan ere, esparru hauek oso beharrezkoak dira hiritarren gozamenerako eta gainera, osasunerako onuragarriak dira. Ekintza planen baldintzen artean, eremu lasaien babesa dago. Legea betetzeaz harago, faktore nagusitzat jotzen da, hiriko ingurumeneko soinuaren kudeaketa prozesu batean.

Errenteriako zarata-mapatik abiatuz eta 213/2012ko Dekretuaren definizioarekin bat eginez, hainbat eremu lasai onartu dira:

Kalitate akustikoko helburuak betetzen dituen eta bere ezaugarriengatik edo erabilerarengatik, kutsadura akustikoaren aurrean babes berezia behar duten a) edo e) motako esparruak.

Honako hauek izanik:



Aurreko mapan erakutsitako eremu lasaiez gain, Aiako Harria Parke Naturala ere, eremu lasaia da, zarata-mailengatik.

Bestalde, eremu lasaiez aparte, ezin gara parke edota enparantza moduko esparruez ahaztu, izan ere, bere erabileragatik hauek ere eremu lasaiak izan beharko lirateke.

Zentzu honetan, Errenteriako zarata-maparen egiteak, esparru mota hauen lehenengo balorazio bat integratu du, esparru bakoitzean jasotzen diren zarata-mailen eta hauen jatorriaren analisiaren bidez.

Bestalde, lan-ildo honetan lanean jarraitzea proposatzen da.

Amaitzeko, hiri-esparruen diseinu akustikoa, zarata murriztea ezinezkoa den lekuetan, soinu-ingurunea hobetzeko irtenbidea izan daitekela kontuan eduki behar da.

2.3 Azpi-ildoak. Etorki naturaleko soinuen erreserbak

Etorki naturaleko soinuen erreserbak (hemendik Aurrera ENSE), 213/2012 Dekretuaren arabera honakoa da: *g) motako eremuen multzoan sailkatutako espazioak; espazio horietako soinuk hots-kutsaduraren aurrean zaindu beharrekoak dira, bai beren kultura- edo natura-balio berdingabea dela medio, bai beste zarata-iturri batzuen aurrean duten garbitasuna edo gardentasuna dela bide.*

ENSE hauek Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoak mugatu behar ditu. Honetaz gain, horietako baldintza akustikoak gordetzeko edo hobetzeko neurrien prestatzea eta ezartzea ere egin behar ditu, foru-organoekin batera.

Gainera, Dekretu honek ezartzen duen moduan, Eusko Jaurlaritzak ENSEakizendatu behar zituen 2017ko urtarrila baino lehen. Hala ere, txosten hau idaztean, oraindik ez dago egina.

Errenteriako udalerrian Aiako Harria Parke Naturala dago, zein g) motako eremua dena eta, bere ezaugarriengatik, agian, zati bat edo bere osotasunean, ENSE-tzat izendatu ahal izango litzateke.

Horregatik, Udalak izendapen hori eskatuko dio, ahalik eta denbora gutxienean, organo eskudunari.

Izendapen honen xedea soinu-natural aberatsa daukaten eremu hauek babestea da. Horretaz gain, biodibertsitatea babestea; hezitzeko, kontzientziazteko eta hiritartasunerako hedatzetresna izanda. Gainera, pertsonen gozamenerako balioko du, betiere ingurumena errespetatuz.

2. Lan-ildoak: Ekintza prebentiboak			
2.1 azpi-ildoak. Hiriko garapenean integratutako hobekuntza ekintzak.			
Helburuak	Ekintzak	Udal-arduradunak	Adierazleak
L.2.1.1 Aldez aurretik kutsadura akustikoa saihestea eta eraikin berrietan faktore hau kontuan izatea.	<p>A.2.1.1.1 Egin behar diren ikerketa akustikoen eskaera eta jasotzea koordinatzeko barne-prozesu bat sortzea, baita 213/2012 Dekretuarekin bat eginez, eraikinen kalitate akustikoa bermatzea ere.</p> <p>A.2.1.1.2 Hirigintza- fitxetan, erabilera, arkitektura, eta diseinuen gaineko aholkuak jasotzea</p> <p>A.2.1.1.3 Zarata-iturri berriak gehitzen direnean, trafikoaren kudeaketa egokia, adibidez etxebizitza berrietara sarbideak.</p> <p><i>Kontuan izan: erreilen diseinua, baimendutako abiadura, bide-gorrien presentzia, garraio publikoaren sarbidea, eta abar.</i></p> <p>A.2.1.1.4 Zarata ikerketetan aurreikusitako neurri zuzentzaile/prebentiboen jarraipena (hirigintza planen berezko zarata planak edo garrantzi gehiagoko azpiegitura proiektuen barneko zarata ikerketakoak)</p> <p>A.2.1.1.5 Eraikin berriek, Eusko Jaurlaritzak, Eraikingintzaren Kontrol Akustikoaren 2016ko ekainaren 15eko ordena betetzen dutela bermatzea, DB-HR, betetzen dela bermatzeko, baita barrualdetarako, 213/2012 Dekretuak ezartzen dituen kalitate akustikoko helburuak ere.</p>	Udaltzaingo eta Hirigintza Saila	<p>Entsegu akustikoekin eskatutako lizentzien ehunekoa</p> <p>Jasotako ikerketa bakoitzetik egindako ebaluaketa positiboen kopurua.</p>

2. Lan-ildoak: Ekintza prebentiboak			
2.2 azpi-ildoak. Eremu lasaiak.			
L.2.2.1 Esparru lasaiak babestu eta sustatzea	A.2.2.1.1 Hiritarren gozamenerako eta osasunerako onuragarriak diren esparru lasaien kontserbazioa.	Udaltzaingoa, Ingurumen, Hiri-mantenuko eta Hirigintza Sailak	KAH betetzen eta lasaiak diren esparru publikoen Km ² kopurua.
L.2.2.2 Erabilera publikoko esparruen pertzepzioaren gaineko informazioa eskuratzea	A.2.2.2.1 Kanpoaldean dauden esparru publikoen hiritarren pertzepzioaren ebaluaketa egitea. 'Soinu paisaiaren' ebaluaketa.	Ingurumen eta Hirigintza Sailak	Aztertutako esparru kopurua. Hobetutako esparru kopurua, akustikaren ikuspuntutik.
L.2.2.3 Erabilera publikoko esparruak hobetzea	A.2.2.3.1 Akustika aldetik eskasak diren esparruen azterketa eta hobekuntza, ingurune 'atseginak' sortuz, nahiz eta zarata-mailak ez murriztu, adibidez, soinu ezatseginak estaltzen dituzten edo inpaktu bisuala hobetzen dituzten elementuak gehituz (iturriak, zuhaitzak, eta abar.) A.2.2.3.2 Garatzen diren parke berrietan, ezaugarri akustikoak kontuan izatea.	Ingurumen eta Hirigintza Sailak	

2. Lan-ildoak: Ekintza prebentiboak			
2.3 azpi-ildoak. Etorki naturaleko soinuen erreserbak			
<p>L.2.3.1 ENSEak babestu eta sustatzea</p>	<p>A.2.3.1.1 Eusko Jaurlaritzari Etorki Naturaleko Soinuen Erreserben mugaketa eta onarpena eskatzea</p> <p>A.2.3.1.2 Eusko Jaurlaritzari Errenteriako udalerrian mugatutako ENSEtako zaintze eta hobekuntza plana egitea eskatzea.</p> <p>A.2.3.1.3 Eusko Jaurlaritzarekin eta beharrezkoa izanez gero, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, ENSEtako zaintze eta hobekuntza planak egiten kolaboratzea.</p>	<p>Ingurumen eta Hirigintza Sailak</p>	<p>Errenterian, ENSEk mugatutako km²</p>

3. Lan-ildoak: Ekintza zuzentzaileak

3.1 azpi-ildoak, Gatazken identifikazioa eta zonakako planen garapena.

Justifikazioa

Zonakatze akustikoaren arabera ezarritako KAH gainditzen direnean, indarrean dagoen legediak, eremu horiek, babes Akustiko Bereziko Eremutzat jo behar direla ezartzen du (BABE).

Babes Akustiko Bereziko eremu baten deklarazioak gutxienez honako hau izan behar du:

- Eremuaren mugaketa
- Zarata-igorleen identifikazioa eta beren eragina
- Zonakako Plana:
 - Irtenbide akustikoen azterketa
 - Irtenbideen onura akustikoak
 - Bideragarritasun ekonomikoaren gaineko ikerketa
 - Egitearen ardura duten pertsona edo entitateak
 - Kostu eta onuren arteko harremana.

BABE-k txosten honen 5. atalean definitu dira, Errenteriako zarata-mapan lortutako emaitzen arabera.

3.2 azpi-ildoak, bide-trafikoak eta mugikortasunaren gaineko ekintzak.

Justifikazioa:

Bide-trafikoak da biztanle gehien kaltetzen dituen zarata-iturria, hori dela eta, modu mailakatuan hobekuntzak dakarten eta Mugikortasun Planarekin bat egin behar duten neurriak martxan jartzea beharrezkoa da, beti ere, akustikaren ikuspuntutik neurriak eraginkorrenak eta bakoitzak eragingo lukeen onura akustikoa ahal den heinean kalkulatu.

Ekintza asko zonakako planetan sartuko badira ere, beste batzuk izaera orokorragoa dute, mugikortasun iraunkorraren sustapena, adibidez.

Errenteriako udalerrian bide gehienek 30 km/h abiadura mugaketa dute, eta tipologia eta kokapenagatik, ezinezkoa da soinu-langak edo dikeak jartzea. Hori dela eta, herriguneko bideetako trafikoak sortzen duen zarata murrizteko ekintza gehienak mugikortasunean oinarrituko dira.

3.3 Azpi-ildoak, Azpiegituren gaineko neurri zuzentzaileak.

Justifikazioa:

Zarata-Mapa abiapuntu hartuta, Errenterian Gipuzkoako Foru Aldundiarenak diren errepideak sortzen duten zarata-mailak, aplikagarriak diren KAHk gainditzen dituztela antzeman da. Horrez gain, beste eremu batzuk daude ere, non errepideek sortzen duten zarata-mailak kontuan hartuz gero KAHk betetzen diren, baina zarata-iturri horri ingurumeneko gainontzeko zarata-iturrien eragina batzen badiegu, KAHk gainditzen diren.

Bestalde, Errenteriako udalerritik bi trenbide igarotzen dira, bat ADIF-ekoa eta bestea ETS-rena. Lehena erasan gehien sortzen duena izanik. ETS-renak, ez du bere ingurunean gatazkarik sortzen, bai ordea erasan garrantzitsua.

ETS-ren kasuan, ez dago KAHn gainetik kaltetutako biztanleriarik, bai 52 eta 55 dB(A) arteko mailak jasotze dituzten eraikinak, non zarata-iturri ezberdinak batuz gero KAHk gainditzea erraza izan daitekeen.

Zarata-iturri hauen kudeatzaileak, ADIF, ETS eta Gipuzkoako Foru Aldundia, bere iturriek sortzen duten erasana murrizteko neurri zuzentzaileak adostearen arduradun badira ere, Udala da ingurumeneko zarata-iturri guztiak batuta azterketa egin behar duena baita udalerrian kutsadura akustikoa ahalik eta gehien murriztearen arduraduna ere.

3.4 azpi-ildoak, Industrien gaineko neurri zuzentzaileak

Justifikazioa:

Industriak Errenteriako biztanleriaren %1ean baino ez du eraginik sortzen, Etxeberrieta auzoko eraikin gehienetan eragina duela egia da ere, batez ere Papresa enpresak sortutako zarata.

Gainontzeko industria-guneak ondoko eraikinetan duten eragina txikia bada ere, jarraipena egiten jarraitu behar da gatazka edo erasan berriak sortu ez daitezen.



Illo honetan, Pasaiako portua sartzan da, izan ere, zarata-mapak honen eraginik jasotzen ez baitu, seguru asko, iturri honek duen izaera ez-jarraituagatik.




3. Lan-ildoak: Ekintza zuzentzaileak			
3.1 Azpi-ildoak. 3.1 azpi-ildoak, Gatazken identifikazioa eta zonakako planen garapena.			
Helburuak	Ekintzak	Udal arduradunak	Adierazleak
<p>L.3.1.1 Ingurumeneko zarata-iturrien kutsadura akustikoa murrizteko BABE-n garapena</p>	<p>A.3.1.1.1 Zonakako planen definizioa: BABE-etan ekintza plan orokorren eragina markatuko duten zonakako planak, eta eremu bakoitzean martxan jarriko diren ekintza zehatzak definituko dira, epe labur eta ertainetarako ekintzen lehentasuna markatuz.</p> <p>A.3.1.1.2 Zonako plan bakoitza SIHP-ako ekintza-ildo batzuekin bateratu</p> <p>A.3.1.1.3 Zonakako Plan bakoitzean sartzen diren ekintzen eboluzioa jarraitu.</p>	<p>Zarataren gaineko Udal lantaldeak: Udaltzaingoa, Ingurumen, Hirigintza eta Hiri-mantenuko sailak</p>	<p>KAHn gainera gainetik katetutako biztanleriaren ehunekoa</p>
3.2 Azpi-ildoak			
Helburuak	Ekintzak	Udal arduradunak	Adierazleak
<p>L.3.2.1 Herriguneko bide-trafikoak sortutako erasan akustikoa murriztea</p>	<p>A.3.2.1.1 BABE bakoitzaren zonako planak egin, neurri zuzentzaile zehatzekin.</p> <p>A.3.2.1.2 Herrigunean, garraio pisutsuari sarbidea mugatzea. Isunak ezarri.</p> <p>A.3.2.1.3 Abiadura kontrolak (oharrak)</p> <p>A.3.2.1.4 Motordun garraioen soinu- igorpena kontrolatu, ITV-a betetzen dutela egiaztatuz.</p> <p>A.3.2.1.5 Trafikoaren Mugikortasun Plana egin.</p> <p>A.3.2.1.6 Errenteriako oinezko eta txirrindularien Mugikortasun planaren jarraipena.</p>	<p>Udaltzaingoa, Ingurumen, eta Hiri-mantenuko sailak</p>	<p>Legea hausten duten kontra martxan jarritako ekintza kopurua (abiadura, garraio astunaren kontrako isunak, eta abar.)</p> <p>Egindako mugikortasunaren aldeko ekintza kopurua</p>



3. Lan-ildoak: Ekintza zuzentzaileak			
3.3 Azpi-ildoak. Azpiegituren gaineko neurri zuzentzaileak.			
Helburuak	Ekintzak	Udal arduradunak	Adierazleak
L.3.3.1 GFA-ren bideko azpiegiturek sortzen duten erasan akustikoa murriztea	A.3.3.1.1 GFA-ri bere errepideak sortzen duten erasan akustikoa murrizteko ekintzak martxan jartzeko eskatu	Zarataren gaineko Udal lantaledea: Ingurumen, Udaltzaingo eta Hirigintza sailak	
L.3.3.2 Bigarren Gerrikoa martxan jartzeak sortu duen erasan akustikoa murriztea	A.3.3.2.1 Bidegiri eta GRA-ri Bigarren Gerrikoak gertuko etxebizitzetan duen eraginaren azterketa sakon bat egitea eskatu; egindako Ingurumen Eraginaren Azterlanean jartzen dena egiaztatuz eta kaltetutako baserriek eta barreiatutako herri auzoek daukaten sentsibiltate handiagoa kontuan hartuz.	Zarataren gaineko Udal lantaledea: Ingurumen, Udaltzaingo eta Hirigintza sailak	
	A.3.3.2.2 Lur-kabailoiak jartzea eskatu, Zabalbideko auzoak pairatzen duen erasan akustikoa murrizteko.		
L.3.3.3 ADIF-eko sarean sortutako erasan akustikoa murriztea	A.3.3.3.1 ADIF-eri bere trenbideek sortzen duten erasan akustikoa murrizteko ekintzak martxan jartzeko eskatu	Zarataren gaineko Udal lantaledea: Ingurumen, Udaltzaingo eta Hirigintza sailak	Kanpoko kudeatzaileei ekintzak sortzeko egindako eskaera kopurua
L.3.3.4 ETS trenbideak sortzen duen erasan akustikoa eta molestiak murriztea	A.3.3.4.1 ETS eta Eusko Jaurlaritzari bere trenbideek sortzen duten erasan akustikoa murrizteko ekintzak martxan jartzeko eskatu		Kontuan izandako eskaera kopurua
	A.3.3.4.2 ETSri bigilatu eta trenbidearen eta trenen mantenu egokia egin dezan gogorarazi	Zarataren gaineko Udal lantaledea: Ingurumen, Udaltzaingo eta Hirigintza sailak	Errepideen zaratagatik kaltetutako biztanleen murrizketaren ehunekoa.
	A.3.3.4.3 ETS-ri bere trenbideetatik igarotzen diren trenak sortzen duten zarataren azterketa zehatzak egitea eskatu.		
	A.3.3.4.4 ETS-ri, Fanderia eta Erdialde Historikotik trenak pasatzean eragiten duten kirrinka murrizteko ekintza zehatzak ezartzeko eskatu.		



3. Lan-ildoak: Ekintza zuzentzaileak			
3.4 Azpi-ildoak. Industrien gaineko neurri zuzentzaileak			
Helburuak	Ekintzak	Udal arduradunak	Adierazleak
L.3.4.1 Papresak sortzen duen erasan akustikoa murriztea	A.3.4.1.1 Papresa enpresari, zarataren kudeaketa plan bat egiteko eskatu. Plan hau ikerketa akustikoan oinarriturik egon behar da eta zarataren ondorio kaltegarriak murrizteko neurri teknikoak ezarriko ditu, baita egiteko epeak ere, Etxeberrieta eta Olibet auzoetarako ezarritako KAHk betetzeko	Zarataren gaineko Udal lantaldeak: Ingurumen, Udaltzaingo eta Hirigintza sailak	Industria zaratagatik kaltetutako biztanleriaren murrizketaren ehunekoa. Aurrera eramandako ekintza eskaeren ehunekoa
	A.3.4.1.2 Kudeaketa planean ezartzen diren ekintzak aurrera eramaten direla bermatu.	Ingurumen saila	
L.3.4.2 Pasaiako portuak sortzen duen benetako erasana ezagutu eta murriztea.	A.3.4.2.1 Pasaiako portuari, ingurumeneko legearekin bat eginez, bere zarata-mapa eskatu, baita ekintza lana ere, araudiarekin betetzen ez badute.	Zarataren gaineko Udal lantaldeak: Ingurumen, Udaltzaingo eta Hirigintza sailak	
L.3.4.3 Gatazka berrien agerpena saihestea	A.3.4.3.1 Industria eta hirugarren sektoreko garapen berriak sortzen direnean, legearekin betetzen dela bermatu.	Ingurumen saila	



Honetaz gain, udal eskuduntzakoak ez diren zarata-iturrientzako gatazka eremuak identifikatu dira ere, eremu bakoitzean egokiak litzatekeen neurri zuzentzaileak adieraziz, kasu bakoitzean, gatazka eta arazo zehatza kontuan izanda. Azterketa honek, zarata-iturri kudeatzaileei ekintza zuzenak eskatzeko balioko duelarik.

Eremua	Gatazka	Irtenbide posibleak
Beraun		<p>Zarata-iturriak: GI-20 eta GI-636 errepideak.</p> <p>Deskribapena: GI-2o autobideak eraikinen gainetik kokatzen da eta 5 dB(A) baino gatazka akustiko altuagoak sortzen ditu. Horren kontra, GI-636 errepidea eraikinen kotaren azpitik kokatzen da eta gatazka akustikoa 4 dB(A)-tara heltzen da.</p> <p>Eremu honetako eraikinak orokorrean, 6 solairuko etxebizitzak dira.</p>
Kaputxinoak eta Sorgintxulo		<p>Zarata-iturriak: GI-636 errepidea.</p> <p>Deskribapena: GI-636 errepidea auzo bietan dauden eraikinen kotaren azpitik kokatzen da. Sorgintxulo kalean kokatzen diren eraikinak eta errepidea kota antzekoan daude, ordea.</p> <p>Eremu hauetako eraikinak orokorrean 6 solairu baino gehiagoko etxebizitzak dira. Bi eskola daude ere (Don Bosco LHII eta Bizarain BHI)</p> <p>Errepidearen abiadura mugatzea.</p> <p>Eraikinen fatxadetako isolamendua hobetzea.</p> <p>Eskoletako aisialdirako eremuak isolamenduaren bidez babestea.</p>

Eremua	Gatazka	Irtenbide posibleak
Lartzabal		<p>Zarata-iturriak: GI-2132 errepidea. Deskribapena: Eremu honetan errepideak hiri-izaera du, eta abiadura 50 km/h-tara mugatuta dago. Errepidea eta eraikinak kota antzekoan kokatzen dira, 20m-ko aldearekin. Kasu honetan, gatazka akustikoa altutzat jotzen da, izan ere, eraikin batzuetan 5 dB(A)k gainditzen baititu.</p>
Lartzabal, Oiartzun ibaiaren eremua		<p>Zarata-iturriak: GI-2132 errepidea Deskribapena: Eremu hau Oiartzun ibaiaren inguruneke paisaiaren Ekintza Planan sartuta dago. Kasu honetan, gatazka akustikoa altutzat jotzen da eremuaren gehiengoan, 5 dB(A)k gainditzen baititu.</p>
Gabierrota		<p>Zarata-iturriak: GI-636 errepidea. Deskribapena: Errepidea, eraikin antzeko kotan kokatzen da, 80 m-ko aldearekin. Eraikinetan sortzen den erasana ez da oso altua, baina gainontzeko iturrien eragina jasotzen duenez ere, errepideak KAHk ez betetzea eragiten du.</p>

Eremua	Gatazka	Irtenbide posibleak
Fanderia, Markola eta Agustinak		<p>Zarata-iturriak: AP1-AP8 autopista Deskribapena: autopistaren zati gehienetan soinu-langak daude, baina hauek ez dira nahiko eta oraindik ere bada gatazka akustikoa zenbait eraikinetan, egun soinu-langengatik babestuta ez daudenetan, alegia. Errepidea, eraikinak baino askoz ere kota altuagoan kokatzen da.</p> <p>Dimentsio handiagotako soinu-langak jartzea. GI-20 errepidean abiadura murriztea. Eraikinetako solairu altuenetan isolamendua hobetzea.</p>
Lau Haizeta Parkea		<p>Zarata-iturriak: bigarren gerrikoa (AP1-AP8) eta GI-3671 Deskribapena: Lau Haizeta parkea egungo zarata-iturrien altuera berdinean kokatzen da. Gatazka akustikoa 1 eta 5 dB(A) artean dago.</p> <p>GI-3671 errepidean abiadura murriztea.</p>

Eremua	Gatazka	Irtenbide posibleak
Zamalbideko baserriak eta inguruak		<p>Zarata-iturriak: Bigarren Gerrikoa (AP1-AP8) eta GI-3671</p> <p>Deskribapena: Eremu honetan barreiatutako baserriak daude; bigarren gerrikoa baino altuera handiagoan eta GI-3671 errepideko kota berean daudenak.</p> <p>Aurkezten duten gatazka akustikoa 1 eta 5 dB(A) artean dago.</p>
Olibet eta Etxeberrieta		<p>Zarata-iturriak: ADIF trenbidea</p> <p>Deskribapena: trenbidea eraikinen kota baino apur bat gorago kokatzen da, auzo hauetako eraikinak 5 solairu baino gehiagokoak dira gehienbat.</p> <p>Aurkezten duten gatazka akustikoa 1 eta 5 dB(A) artean dago.</p>

Eremua	Gatazka		Irtenbide posibleak
<p>Gabierrota eta Lartzabal</p>		<p>Zarata-iturriak: ADIF trenbidea Deskribapena: trenbidea eraikinen kota baino apur bat gorago kokatzen da, auzo hauetako eraikinak 4 eta 5 solairu artean dituzte. Aurkezten duten gatazka akustikoa 1 eta 5 dB(A) artean dago.</p>	<p>Soinu-langa jartzea edo trenbideen estaltzea. KAH-ak betetzeko konponbide hauek ezartzen ez diren bitartean: Fatxada kaltetuen isolamendua hobekuntza</p>
<p>Galtzaraborda eta Gaztaño</p>		<p>Zarata-iturriak: ETS-ko trenbidea Deskribapena: Trenbideak auzo hauetako etxebizitzek baino kota altuagoa dauka. Bakarrik bi eraikinetan badago gatazka, baina bete lauetan sor daiteke. Gainera, trenbideko kirrinkei buruzko keak daude eremu honetan.</p>	<p>Trenbideen lurperatzea. Behin behineko neurri moduan, kirrinkei murrizteko irtenbideak, esate baterako, erreia ureztatzea. KAH-ak betetzeko konponbide hauek ez ezarri ezkeror: Fatxada kaltetuen isolamendua hobekuntza</p>

4 Lan-ildoak: Zarata-maparekin zerikusia ez duten hobekuntza ekintzak

Kexa gehien eragiten dituzten zarata-iturri askok, gaueko aisia (terrazak, kontzertuak, ekitaldiak, eta abar), etxebizitza guneetan kokatzen diren jarduera ezberdinetako egoitzetako ekintzak (ostalaritza, tailerrak, eta abar) edota garbiketa eta hondakinak jasotzeko zerbitzuak, adibidez, ez dira zarata-mapan kontuan hartzen, baina ekintza planak zarata-iturri hauek sortzen dituzten arazoak jorratu behar ditu.

Lan-ildo hau planteatzen den zarata-iturri nagusia, esparru publikoetan eta etxebizitza guneetan dauden jarduera ezberdinetako zarata da, izan ere, hauek dira gatazka gehien sortu dezaketenak. Hala ere, ezin dira gainontzeko zarata-iturriak ahaztu, batez ere udal zerbitzu edo azpiegituretatik datozenak.

4.1 azpi-ildoak			
Helburuak	Ekintzak	Udal-arduradunak	Adierazleak
L.4.1 Zarata-maparekin zerikusia ez duten zarata-iturrien arazoak ezagutu	<p>A.4.1.1 Gaueko aisialdirako arrazoiak identifikatu eta KAHetan duen eragina baloratu.</p> <p>A.4.1.2 Bere ingurunean erasana sortu dezaketen udal-azpiegituren zarata ebaluatu</p> <p>A.4.1.3 Udal-zerbitzuek sortzen duten zarata ezagutu, adibidez, Hiri Hondakin Solidoen jasotze-zerbitzuak, edota bide-garbiketa zerbitzuak. Gatazka identifikatu hobekuntza posibleak aztertzeko.</p>	Ingurumen, Hirigintza eta Hiri-mantenuko sailak	<p>Jasotzen diren kexa kopuruen murrizketa</p> <p>Ebaluatutako zarata-iturri kopurua</p>
L.4.2 Esparru publikoak kokatzen diren jarduerak sortzen duten erasan akustikoa murriztea	<p>A.4.2.1 Esparru publikoetan eta etxebizitza eremuetan jarduerak eta ikuskizunak arautzen dituen udal ordenantza sortzea.</p> <p>A.4.2.2 Hiri-ordenantza bat egitea.</p> <p>A.4.2.3 Eremu bakoitzeko arazoa aztertuta, bakoitzean hobekuntza plan bat egin eta jarraitu.</p> <p>A.4.2.4 Obra pleguetan, zaratarekin lotutako baldintzak ezartzea (ordutegiak, gehienezko zarata-mailak, eta abar.)</p>	Udaltzaingoa, Ingurumen, Hirigintza, Hezkuntza, Kirola eta Kultur sailak	

5. Lan-ildoak: Zabalketa eta heziketa

Zarata, gizakiaren ekintzarekin lotutako kutsatzailea da, ondorioz, SIHP gizakiaren jarrera, akustikoki iraunkorragoa izatera aldatzen lagun beharko luke, zarata sortzen duten iturri edo jardueren murrizketa ekarriko luketen jarrerak, alegia.

Hiritarren jokabideek udalerriko soinu-ingurumenean eragina duten makina bat elementuetan eragina dute, adibidez, mugikortasuna (erabiltzen den garraiobidearen arabera), gidatzeko modua, esparru publikoetan dugun jokabidea, edota gaueko aisialdiko gure jarrera, eta abar.

Bestalde, Planak egoera akustikoren hobekuntza mailakatua du helburu, hortaz, honek martxan jartzen diren ekintzen balorazioan laguntza eskaini behar du ere.

5.1 Azpi-ildoak			
Helburuak	Ekintzak	Udal-arduradunak	Adierazleak
L.5.1 SIHP-ren helburuak lortzeko laguntza eskaini.	<p>A.5.1.1 SIHP-ren arrakasta lortzeko, kontzientziazioan eta irtenbideen bilaketan laguntzen duten programa parte-hartzaileak eraikitzea</p> <p>A.5.1.2 Tokiko Agenda 21 testuinguruaren barnean, zaratarekin lotutako kanpaina zehatzak sortzea</p> <p>A.5.1.3 Barne-mailan, zarata eta bere lege-aplikazioaren gaineko kurtsoak egin</p>	Ingurumen eta Hirigintza sailak	<p>Kontzientziazioarekin lotutako ekintza kopurua</p> <p>Argitalpen kopurua</p> <p>Heziketa orduen kopurua</p>
L.5.2 Martxan jartzen diren ekintzak balorean jartzea	<p>A.5.2.1 SIHP udalaren webgunean argitaratzea, baita udalerrian soinu-ingurumenarekin lotuta egin diren ekintzen gaineko urteko txostena</p> <p>A.5.2.2 Herrigunean eta udalerrri osoan, eremu lasaien dibulgazioa.</p>	Ingurumen saila	

9. EZARRI BEHARREKO NEURRIEN KUANTIFIKAZIO EKONOMIKOA

Ekintza Planako fase honetan, ezin da zehaztu ezartzeko neurri guztietako kostu ekonomikoa.

Proposatutako Babes Akustiko Bereziko Eremu bakoitzarekin lotutako Zonakako Planak garatu behar direnez; hauetan, zuzentzeko neurri konkretuen balioa kuantifikatuko da.

45.000 €-tako gutxi gorabeherako balioa ezartzen da, lehen esandako 12 Zonakako Planak egiteko, beste konponbideak kuantifikatu ezin direlarik.

10. AGENTE ARDURADUNEN IDENTIFIKAZIOA

Zarata gaian eta ekintza plana garatzeko agente arduraduna, Errenteriako Udala da.

Hau da, zarata-mapa totala egiteko arduraduna, hau da, ingurumeneko zarata-iturri guztiak kontuan dituen zarata-mapa egitearen arduraduna, bai udal eskuduntzako zarata-iturriak baita bere eskuduntzakoak ez direnak ere, azkenak honako hauek izanik:

- Errepideak: Gipuzkoako Foru Aldundia
- Trenbidea: Sustapen Ministerioa / ADIF
- trenbidea: Eusko Jaurlaritza / ETS

Udala, Zonakako Planak egitearen arduraduna bada ere, zarata-iturrien kudeatzaile eta arduradun guztien laguntza beharko da, hauen garapenerako.

Bestaldetik, Ekintza Planak, etorki naturaleko soinuen erreserben babesari buruzko ildo bat ezartzen du. Kasu honetan, organo eskuduna, Errenteriako Udalaz gain, hurrengo da:

- Eusko Jaurlaritza. Ingurumen Saila

11. JARRAIPIEN PLANAREN DEFINIZIOA

Lan-ildo eta azpi-ildo bakoitzarentzako SIHP-ren garapen egokia neurtzeko, adierazleak ezarri edo definitu dira. Planak 5 urteko iraupena duelarik.

Jarraipen adierazle hauen kuantifikazioak, SIHPren eboluzioa neurtzea ahalbidetuko du, baita sortu daitezkeen desbideraketak antzeman eta hauek zuzentzea ere.

Adierazleak baloratzeko, bi frekuentzia mota ezari dira, urtekoa (Zarata-Mahaiaren bileretan ebaluatzekoa) eta 5 urtetik behin (zarata-mapa berritzen denean ebaluatuko dena). Jarraian, proposatutako adierazleak laburbiltzen dira, baita jarraipena egingo zaien frekuentzia ere:

Adierazlea	Frekuentzia
1. Lan -ildoak: udal zarata kudeaketan lan egiteko ildoak.	
Urtean ospatzen diren bilera kopurua	Urtero
2. Lan-ildoak: Ekintza prebentiboak	
Entsegu akustikoekin eskatutako lizentzien ehunekoa	Urtero
Jasotako ikerketa bakoitzetik egindako ebaluaketa positiboen kopurua.	Urtero
KAH betetzen eta lasaiak diren esparru publikoen Km ² kopurua.	5 urtetik behin
Aztertutako esparru kopurua	Bi urtetik behin
Hobetutako esparru kopurua, akustikaren ikuspuntutik.	Bi urtetik behin
3. Lan-ildoak: Neurri zuzentzaileak	
KAHn gaintetik katetutako biztanleriaren ehunekoa	5 urtetik behin
Legea hausten duten kontra martxan jarritako ekintza kopurua (abiadura, garraio astunaren kontrako isunak, eta abar.)	Urtero
Egindako mugikortasunaren aldeko ekintza kopurua	Urtero
Kanpoko kudeatzaileei ekintzak sortzeko egindako eskaera kopurua	Urtero
Kontuan izandako eskaera kopurua	Urtero
Errepideen zaratagatik kaltetutako biztanleen murrizketaren %	5 urtetik behin
Industria zaratagatik kaltetutako biztanleriaren murrizketaren %	5 urtetik behin
Neurriak ezartzeko eskaera kopurua	Urtero
4. Lan-ildoak: zarata-maparekin zerikusia ez duten ekintza zuzentzaileak	
Jasotako kexa kopurua	Urtero
Ebaluatutako zarata-iturri kopurua	Bi urtetik behin
5. Lan-ildoak: Dibulgazio eta heziketa	
Kontzientziazioarekin lotutako ekintza kopurua	Urtero
Argitalpen kopurua	Urtero
Heziketa orduen kopurua	Urtero

12. INFORMAZIOA PUBLIKORA ZABALTZEAN, ALEGAZIO EDO OHARREN LOTURA

Informazio publiko aldiaren bitartean, dokumentu hau, Errenterian eragina dituzten kanpoko fokuen kudeatzaileei ere bidali izan zen, hau da; ETS, ADIF, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzaren beharrezko ekarpenak egin dezaten.

Egindako kontsulta hauetatik, ADIF-ek bakarrik erantzun du, sustapen Ministerioare eta ETS-ren bitartez. Jarraian, bakoitzaren jasotako oharra erakutsiko ditu:

Sustapen Ministerioa:

Gogoan hartzen dute lurperatze jarduerak edo bideen estaldura ekintza oso garestiak eta betearazpen konplexua direla, isolamenduaren hobekuntzarako hobeago izango zen hartzaileengan beste neurrien azterketa egitea, epe gutxiago batean egin egongo litzateke eta.

Beste alde batetik, aipatzen du II.FASEKO ZEPan bi gune daudela kalitate akustikoko helburuak gainditzen direnak: 02_01_Errenteria_01_39 eta 02_01_Errenteria_02_41. Aipatzen dute baita ere Olibet auzoan kexa bat.

Sustapen Ministerioak, bere alegazioari honako dokumentua ere eranstean dio: RESUMEN MEMORIA TÉCNICA DE LOS PLANES DE ACCIÓN CONTRA EL RUIDO CORRESPONDIENTE AL MER DE LOS GRANDES EJES FERROVIARIOS. FASE II

Tabla 12.39. Zona de actuación 02_01_Errenteria01_39

Definición y valoración de las medidas en 02_01_Errenteria01_39			
Medio	Elemento singular	Medida	Coste total
Emisor	Material móvil	✓ Empleo de material móvil más silencioso. (Adquisición de nuevas unidades, carenado de bogies, de pantógrafo, silenciadores, disparadores)	No evaluado
		✓ Sustitución zapatas de fundición por material compuesto tipo LL en mercancías	No evaluado
	Superestructura	✓ Cambio de Elasticidad. Placa de asiento	1.100,00 €
Transmisor	Área de propagación	✓ Panel fonosorbente en muro	3.720,00 €
		✓ Pantalla acústica genérica de doble/alta absorción	45.000,00 €
Receptor	Edificación	✓ Divulgación problemática	No evaluable
TOTAL			49.820,00 €

Fuente: Elaboración propia

Tabla 12.41. Zona de actuación 02_01_Errenteria_queja_01

Definición y valoración de las medidas en 02_01_Pasala02_38			
Medio	Elemento singular	Medida	Coste total
Receptor	Edificación	✓ Campañas de medición periódica	4.000,00€
TOTAL			4.000,00 €

Fuente: Elaboración propia

Tabla 12.42. Zona de actuación 02_01_Errenteria_02_41

Definición y valoración de las medidas en 02_01_Errenteria02_41			
Medio	Elemento singular	Medida	Coste total
Emisor	Material móvil	✓ Empleo de material móvil más silencioso. (Adquisición de nuevas unidades, carenado de bogies, de pantógrafo, silenciadores, disparadores)	No evaluado
		✓ Sustitución zapatas de fundición por material compuesto tipo LL en mercancías	No evaluado
Transmisor	Área de propagación	✓ Pantalla acústica genérica de doble/alta absorción	69.750,00 €
Receptor	Edificación	✓ Medidas de aislamiento en edificios	10.000,00 €
		✓ Divulgación problemática	No evaluable
TOTAL			79.750,00 €

Fuente: Elaboración propia

Proposatezen diren neurketa akustikoekin ADIFeko ZME eta Udaletxeko Zarata mapen artean aurkitzen diren desadostasunak egiaztatu egin izango ahal da.

ETS:

Udal betebeharrak, bizitegi sustapenari dagokionez, 213/2012 dekretuaren ezarpenean gogoratuz aparte, Udaletxeak bazekien bere ezaguera, ETS-k eta trenbidearen operadorea (EuskoTren) hobekuntza batzuk burutu dituztela adierazten du, UT 900 tren unitate berriak nabarmendu behar dira, unitate horiek aurrekoak baino 4-5 dB(A) gutxiago sortzen dituzte. 2015 apirilean onetsitako bere zarata mapetan, unitate hauen karakterizazio akustikoa gauzatu zuten. Honen bidez A.3.3.4.3 jarduketa ildoari erantzuten dio.

Beste alde batetik, ETS-k 2016ko ekainean onetsitako zarataren kontrako Ekintza Planan, aurreikusten ditu dagoeneko zarata eraginak murrizteko hobekuntzak, trenbideen mantentze lan egokiak adibidez, Euskotrenek bere trenekin egiten duen era berean. Modu honetan, dokumentu honen A.3.3.4.2 jarduketa betez.

Azkenik, dokumentu honetan aipatzen den Galtzaraborda eta Gaztañoko trenbideen lurperatzeak lekuz kanpo dagoela aipatzen du, horrelako erabaki estrategikoak Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuordetzaren esku baitaude.

Behaketa hauen aurrean, Errenteriako Udaletxeak dio:

Akzio Plan honen barruan, foku hauen kudeatzaileekin kontaktua mantenduko duela zarata sortzaile elementuen mantenimendu on baten beharra, hala nola, Errenterian afekzio akustikoa egiten duten fokua murrizteko beharrezkoak diren neurriak egitea gogorarazteko.

Gainera, trenbideko kudeatzaileei bere lineak sortzen dituen zarata afekziori buruz beharrezko azterketak egitea (jarduera linea A.3.3.4.3) nabarmendu behar zaie, gaur egungo zarata mapetan FFCC-aren afekzio erreala ez da hausnartzen eta.

Beste alde batetik, jasotako behakizunak kontuan hartu dira eta konponbide akustikoak aldatu dira antzemandako afekzioen eremuetan.

Bereziki, 3. linean antzeman diren eremu gatazkatsuetan aldatu dira posible ziren konponbideak: Ekintza zuzentzaileak. Bereziki eremu hauetan adierazita:

- Olibet eta Etxeberrieta

- Gabierrota eta Lartzabal
- Galtzaraborda eta Gaztaño

Aldaketak hurrengoak izan dira

Eremua	Hasierako dokumentuan bildutako testua. hasierako onarpena	Aldatutako dokumentuan bildutako testua. Behin betiko onarpena
Olibet eta Etxeberrieta	Trenbideen estaltzea edo izan daitekeen lurperatzea.	Trenbideen estaltzea edo izan daitekeen lurperatzea. KAH-ak betetzeko konponbide hauek ezartzen ez diren bitartean: Fatxada kaltetuen isolamendua hobekuntza
Gabierrota eta Lartzabal	Soinu-langa jartzea edo trenbideen estaltzea.	Soinu-langa jartzea edo trenbideen estaltzea. KAH-ak betetzeko konponbide hauek ezartzen ez diren bitartean: Fatxada kaltetuen isolamendua hobekuntza
Galtzaraborda eta Gaztaño	Trenbideen lurperatzea. Behin behineko neurri moduan, kirrinka murrizteko irtenbideak, esate baterako, erreia ureztatzea.	Trenbideen lurperatzea. Behin behineko neurri moduan, kirrinka murrizteko irtenbideak, esate baterako, erreia ureztatzea. KAH-ak betetzeko konponbide hauek ez ezarri ezker: Fatxada kaltetuen isolamendua hobekuntza

Gainera, 3. Lineako fitxetako ekintzetan: A.3.3.4.1 jarduketa zuzentzailean, Eusko Jaurlaritza barne sartu egin da arduradun bezala ETS-ko trenbidean jarduketa batzuk egiteko, lurperatzean adibidez, zarata mailen murrizketan eragin handia izan dezake eta.

Beste alde batetik, Herritarrak jakinaren gainean jartzearen prozesuan, partikular baten alegazioa jaso zen. Juan Mari Saiz Etxabeguren jaunak, 2018ko abuztuaren 2.

Erantzun partikular dokumentu batean, Juan Mari Saiz Etxabeguren jaunak bere idazkian egindako hainbat alegazioak, argitu edo atzera bota izan dira.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta zarata-iturri honekiko hiritarren sentsibilitatea eta kontuan hartuta duen garrantzia, egokia kontsideratzen da alegazioa kontuan hartzea. Dokumentuaren atal hori aldatzea proposatzen da, Papresa zarata-iturri azpimarragarrienen zerrendan sartzeko.

Aldaketak hurrengoak izan dira

Hasierako dokumentuan bildutako testua. hasierako onarpena	Aldatutako dokumentuan bildutako testua. Behin betiko onarpena
<ul style="list-style-type: none"> - <i>Herriguneko hego-ekialdea zeharkatzen duen AP1-AP8 autobidea.</i> - <i>GI-20 (Donostiako lehenengo gerrikoa), AP-8-aren zeharbide zaharretik igarotzen da, herriguneko hegoaldetik.</i> - <i>GI-636 errepidea, mendebaldetik eta iparraldetik igarotzen da, mugetan, ondoko udalerrietan sartzen dena.</i> - <i>ADIF-eko trenbideak, herrigunearen iparraldetik eta mugatik oso gertu, hau ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du.</i> - <i>ETS Trenbide Sareko bidea, herrigunearen erdialdetik, hau ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duela.</i> - <i>Pasaiako Portu Jarduera.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Herriguneko hego-ekialdea zeharkatzen duen AP1-AP8 autobidea.</i> - <i>GI-20 (Donostiako lehenengo gerrikoa), AP-8-aren zeharbide zaharretik igarotzen da, herriguneko hegoaldetik.</i> - <i>GI-636 errepidea, mendebaldetik eta iparraldetik igarotzen da, mugetan, ondoko udalerrietan sartzen dena.</i> - <i>ADIF-eko trenbideak, herrigunearen iparraldetik eta mugatik oso gertu, hau ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du.</i> - <i>ETS Trenbide Sareko bidea, herrigunearen erdialdetik, hau ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duela.</i> - <i>Hiriaren erdialde kokatutako Papresa enpresaren jarduera.</i> - <i>Pasaiako Portu Jarduera.</i>